

# Errotaren ondra

Alex Gurrutxaga

**H**auspoa liburutegjak aspaldi ez dela ekin dio Auspoa sailean argitaratuta zeuden zenbait liburu –zenbait perla ere esan genezake– berrargitaratzeari. Berezitasun nagusia, edizio oso zainduak izateaz gain, hizkeran dago: Auspoako testuak euskalkietan egon ohi ziren; Hauspoa liburutegian, berriz, euskara estandarrean agertuko dira –bertsoak izan ezik–. Sail berriko lehen lana Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nitzkin* eleberri autobiografikoa izan da, 1964an argitaratua lehen aldiz. Argitara emandako bigarren lanak hirugarren edizioa du hauxe, eta ongi merezia luke perla edo bitxia deitzea: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*.

Antonio Zavala nekagaitzak Mikela Elizegiren hitzak grabatu eta testu gisa atondu zituen, eta hala sortu zen liburua. Behar bada, Zavalak Elizegiren hitzak

grabatu zituenean, espero zezakeen hizketagai nagusia aita, Pello Errota bera izatea. Baina kontua da liburu honetan bertsolariaren irudia baino gehiago dagoela. Bernardo Atxagak hitzaurrean esaten du lan hauen balioa «errealitatearen alderdi guztiak azaltzeko gaitasunean»



## 'Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua'

**Egilea:** Mikela Elizegi eta Antonio Zavala. **Argitaratzailea:** Hauspoa / Gipuzkoako Foru Aldundia.

dagoela. Nago Atxagaren ideia hori lotua dagoela Pello Esnalek inoiz «bizi-mundua» deitu izan duenarekin; eta horixe da, hain justu, liburu honetan azalartzen dena: mundua ikusi, ulertu eta azaltzeko modua ez ezik, munduarekin harremanetan jartzeko modu jakin bat. Elizegiren kontakizunean bistaritzen dira bizimodua eta ohiturak, sinesmen eta usadioak, gertakizun eta pasadizoak: zakur amorratuena, azken gerrate karlistakoak, lapurretak, emigrazioa, kintoak eta soldaduska, ezkontzak, eta abar.

Bizi-mundu horren ezaugarrietako bat, munduko hainbat tokitan errealismo magikoak edango zuena, errealitatearen eta fantasiaren arteko mugen lausoa da –ez da kapritxoz hitzaurrea Atxagak idatzia–. Elizegiren kontakizunean ez dira falta sorginak, salutardeak eta arima hilak, eta ez dira dekorazio hutsa, baizik oraindik bazter batera erabat apartatu gabe zegoen lehengo sinesmen zaharren aztarrena.

Ezin da aipatu gabe utzi Mikela Elizegiren euskarak berak daukan balioa ere: ez ditu inoiz jatorrasuna eta txinparta gal-

tzen, eta, batez ere, oso eragin-korra da mezua indar betez transmititzen. Hitz gutxirekin asko esaten du, zehatz, eta formulen eta esaeren erabilera aberatsa da ezin gehiago. Bertsoei erreparatu, Mikelak aitaren bertsoak ez ezik, bereak ere hartzen ditu gogoan. Adibidez, kontakizunera dakar Uztapideri bota zion bertso ederra: «Pobriak jaio eta/ pobriak bizi-yak,/ iñork eztiit ukatzen/ eman nai guziyak,/ nunbait izango ditut/ danak mereziyak./ zor-artzekotan kito,/ Jaunari grazi-yak». Eta horretan ere, bertso-lari klasikoaren trazarekin, nabaria da ideien kondentsazioa eta puntuen arteko trinkotasuna.

Atxagak sarreran dioen bezala, literaturaren ikuspegi aristokratikoa daukanarentzat, edo are ikuspegi komertziala daukanarentzat, literatura hau ikusezina izango da akaso. Baina esan dezagun argi: hala bada, akatsa ez da objektuarena, ikusmen eskasarena baizik. «Errotak, ondra izango badu, soinua behar du», dio Mikela Elizegik; bada, gustu baduzu, ez dauka Errota honek soinu gozoaren faltarik.



## 'Argiaren hautsa'

**Egilea:** Luis Elizetxea. **Generoa:** Antzerkia. **Argitaletxea:** Algaidea.

**Z**ahar etxe batean kokatu du Luis Elizetxea idazleak antzezlan, eta bi agure dira protagonista nagusiak. Piezak aurrera egin ahala, argi geratuko da heriotzak presentzia etengabea izango duela onan. Donostia Hiriko Literatur Kutxa Saria jaso zuen *Argiaren hautsa*-rekin egileak, eta orain eman du argitara.



## 'Estereoskopik 16+16'

**Egilea:** Hainbaten artean. **Argitaratzailea:** Bizkaiko museoko.

**E**ulalia Abaitua argazkilaria irakurtzearen eta testuaren arteko harremanak sor dezakeen emaitza baizik. Irakurketak ugariak izanik, azalean doan mezuak beti du asmo batbedera, obrari izenburua eman dion ipuinak duena: *Baina zer demontre dago aukien azpian?*, eta Canok atzeko azalean erantzuten duena, irakurlea xenda pedagogikora erakartzeko: *Paradisua agian...*

Ez da gaizakerietan ibiltzen, ez du aldarrikapena kriptiko bihurtzen, baina oreka mantentzea lortzen du, moralina kutsuko testu moldeetatik urrun dabilelako. Horren ordez, Joseba Sarrionaindiak *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* lanean egin zuen bezala jokatzeko du, edo guztien eredu izan daitekeen Gianni Rodariren *Telefonozko ipuinak*-en antzera, edo zergatik ez, Ursula Wolfelen *29 ipuin zoro*-n bezala. Eta sinisten ez badidazue, erka itzazue Wölfelen *Belar-ilearen ipuina* eta Canoren *Bizarberde*.

Izan ere, paradisua fantasian datza...

Izandakia matxistatik gabeko gizartea irudikatzen laguntzeko asmoz sortu zen Asun Casaso-lan ipuin lehiaketa, eta han saritutako lanak biltzen ditu *Gogoratzeko nauzuenetan*-ek. Hamahiru kontakizunetatik zazpi dira euskaraz; ilustratuta daude guztiak.



## 'Gogoratzeko nauzuenetan'

**Egilea:** Hainbaten artean. **Generoa:** Ipuin ilustratuak. **Argitaratzailea:** Pareaen elkarte.

# Paradisua fantasian datza

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**T**apa gogorrek liburua da, tamaina ertainekoa (17x22 cm), hogeita bost ilustraziorik eta hogeita hiru narrazio laburrekin osatutakoa. Ilustrazioak narrazio bakoitzaren amaieran daude, eta orrialde osoa hartzen dute; zentratuak ageri dira, inguru zuri handiarekin. Testuek ere aire handia dute, kontakizunek arnasa larritasunik gabe hartzeko edo.

Irudi eta letren artean batasun bat dago motiboen agerpenean, bai eta tonuan ere: ukitu surrealista bat agertzen dute, bigarren esanahietara lerratzeko joera garbiarekin, irakurlearen irudimena kitzikatzen.

Halako ezaugarriekin ez da harriztekoa Karlos Linazasoren obra etortzea gogora –berezik *Bat-batean krispetak* (testu mota desberdinak direla aintzat hartuta ere)–, gure Haur eta Gazte Literaturako (HGL) sortzaileen artean Linazasoro inor baino gehiago eta



## 'Zer demontre dago aukien azpian?'

**Idazlea:** Harkaitz Cano. **Ilustratzailea:** Lorena Martinez Oronoz. **Argitaletxea:** Pamiela.

maizago lerratu baita irudimeneren eldarnioa dei daitekeen eremuan.

Haatik, hiru sortzaileek abiapuntua elkarrekin banatzen dute, baina ez formak, eta are gutxiago helmuga. Linazasoro beste baterako utzita, Martinezen irudiez esan liteke gag bisuala lortzen dutela, irakurlea bigarren irakurketa –are, irakurketa paraleloen mundua– bilatzera bultzatuz, baina ez dira hortik pasatzen, formatuaren eta obran duten zereginen ondorioz, suposatzen da.

Canoren testuak egunerokoa oinarritzen dira, eta hari ematen dioten irakurketa desberdin edo berriaren bidez eraikitzen dute dela ezustekoa, dela paradoxa, dela kontrastea; metafora higatu bat erabiltzea zilegi bazait, mundua ikusteko betaurrekoak aldatzea proposatzen digute. Hemen kokatzen dute HGLren ia betierekoko den asmo pedagogikoa, eta hemendik iruditzen zait abiatzen direla testu hauen ahaleginak.

Baina ezin da sinplifikazioan erori. Ipuinak lezio bat eduki dezaketela diot, baina irakaspena ez da esplizitua, Ruben Ruizen *Anekdotak* (edo Anjel Lertxun-